

«Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolaren historia»

IRISO, Angel «Zaki»
Garcés de los Fayos ikastolako irakaslea

0. Agurra

- Arratsalde on, entzuleok, eta, bereziki, arratsalde on, Euskaltzaindiko kideak. Eskerrik asko gure hirira etortzeagatik eta ikastolari holako opari ederra egiteagatik.
- La ponencia va a ser íntegramente en euskera. De todas formas, vamos a proyectar una serie de fotografías mientras se desarrolla la charla.
- Nik ez dut esperientziarik honelako ekitaldietan, nire lehenengo mintzaldia da. Saiatuko naiz ahalik eta hobekien egiten.
- Ikastolak 41 urte bete ditu, urte mamitsuak. Ez da erraza dena laburtzea eta are eta gutxiago denbora laburrean. Horregatik nolabaiteko saski-naskia atera zaidalakoan nago. Espero dut gustukoa izatea.

1. Juan de Amenduxen olerkia

1. Mintzaldia olerki batekin hasi eta beste batekin amaituko dut.
2. Juan de Amendux Iruñekoa zen. Euskaraz idatzi den olerkirik zaharrenetakoa izkiriatu zuen, non eta Tafallan, erregearen espetxeetan preso zegoelarik, 1567ko udaberrian, Jose Maria Jimeno Juriok aditzez eman zuenez.

Euskera. 2011, 56, 1-2. 53-72. Bilbo
ISSN 0210-1564

3. Patxi Salaberrik proposatzen duen irakurketa eta itzulpenean oinarritu naiz.

Emen natza ortzirik nozbait gozoeritzirik
 erioak uste gabe doloroski egotzirik
 ene arima Jaungoikoagana beldurriki partiturik
 lagungabe bide lusean peril asko pasaturik
 onak eta orrak bertan munduan ideririk
 plazarak azkeno atsegabe biurturik
 ikusten (n)tul isusirik arzeze gusia desegirik
 argi gabe illumbitan hustel eta kirasturik
 nigar begi bapederak bere aldias oroiturik
 niorkore esanen estu ni estudan partidurik
 ene arima duzuen gomendatu garitates mobiturik
 Josafate baturen gara judision elkarreki
 bitartea lodagigun bakea de gusieki.

Juan de Amendux (1540-1580)

4. «Aquí yazgo enterrado, derribado inesperadamente y con dolor por la muerte, cuando en otro tiempo me complacía en la vida. Mi alma ha partido con temor hacia Dios, pasando muchos peligros, sin compañero en el largo camino. El mundo me ha quitado súbitamente las idas y venidas (?); los placeres se han convertido al final en pesares. Los amigos y parientes se han olvidado de mí en poco tiempo. Los veo dispersos, deshecha toda la casa (??), sin luz, a oscuras envueltos en la podredumbre y el hedor. Llore cada cual al acordarse de su turno: nadie tendrá enemigo que yo no tenga. Encomendad mi alma movidos de caridad; seguidme enseguida anotando bien estas palabras. Nos reuniremos en juicio en valle de Josafat. Mientras tanto durmamos, que la paz sea con todos»

2. Ikastolaren hasiera

1. Testuingurua:

- a) Frankismoaren azken urteak dira eta belaunaldi berriek mota askotako aldaketak nahi dituzte. Agintariei beldurra galtzen ari zaie eta hamaika aldarrikapen entzuten dira karriketetan.
 - b) Euskara eta euskal kultura berreskuratzeko gogoia pizten ari da eta, gutxika-gutxika, indar ikaragarria hartuko du Euskal Herri osoan, baita Tafallan ere.
 - c) Guraso batzuek bestelako eskola nahi dute, apaiz eta mojarik gabe, makilarik gabe, pedagogia guztiz diferentearekin.
 - d) Ikastolek herri batek eraiki nahi duen berezko eskolari erantzungo diote.
2. 1969an Gipuzkoatik etorritako Luzuriagako langile batzuk bertako herritar batzuekin elkartu ziren eta Tafallan ikastola bat sortzeko lehenengo urratsak eman zituzten.
 3. Jorge Cortes Izalen laguntza paregabea izan zuten garai haietan, Nafarroako beste ikastolek bezala.
 4. 1970eko otsailean, baimena jaso eta ikastola abian jarri zen, German Kabarbaien lehenengo presidentea izanik, mojek utzitako gelaxka batean San Severino asiloan. Lehenengo andereñoa Gartzaingo Nekane Zelaieta izan zen eta zortzi ume hasi ziren:
 - Enrique Izaguirre
 - Jose Ramon Izaguirre
 - Mirentxu Zubiri
 - Itziar Etxebarria
 - Arantza Ilundain
 - Almudena Kareaga
 - Elizabeth Kabarbaien
 - Daniel Etxebarria
 5. Ikastolari «Garcés de Los Fayos» izena jarri zitzaion. Izena Tafallako andre bati zor zaio. Emakume hau hil zenean, dirua eta bestelako ondasunak herriko kultur eginkizunetarako utzi zituen eta, hori zela kausa, kultur patronatu bat sortu zen ondare hori kudeatzeko. Ikastolak 10.000 pezeta jaso omen zuen eta, eskerronez, andre aberatsa-

ren abizena ipini zitzaion ikastetxeari. Esan behar da izen hau sarritan izan dela eztabaidatua eta batzuetan «Tafalla Ikastola» deitzea ere proposatu zen; baina horrek suposatzen zuen burokrazia zela eta, gaur arte iraun du. Egia esan, «Tafallako Ikastola» erabiltzen da eskuarki, baina anekdota politak ere baditugu izen ofizialarengatik; adibidez, «Garcés de los Payos» deitu zigutenean.

3. Gurasoak

1. Egia da hasieran bereziki, baita bere historian zehar ere, asko izan direla Ikastola lagundu dutenak guraso nahiz irakasle izan gabe (bitxia da, baina Nafarroako Ikastolen Elkarte sortu zenean, 1977an, Ikastolako ordezkaria ez zen guraso bat, Pili Berrio laguntzailea baizik), dena dela, gurasoak izan dira eta dira, ezbairik gabe, gurdi honetatik gogorren tira egin dutenak. Bigarren Oinezarako aukeratu genuen leloak, «Lan ta lan auzolan», primeran laburbiltzen du zer suposatu duen ikastola egitea.
2. Haiek probatu dute posible zela eta dela eskola bat zuzenean kudeatzea eta, horrexegatik, bete-betean inplikatzeko. Denetatik egin behar izan dute: hamaika paper hamaika gestio aurrera eramateko (legalizazioak, subentzioak, baimenak...); irakasleen kontratazioan eta ebaluazioan parte hartu; gelak pintatu; patioak atondu; etengabeko konponketak egin; barraka muntatu eta desmuntatu; proiektu berriak proposatu... baita irakasleekin soldata negoziatu ere. Gaur egun anekdotak dira, baina guraso eta irakasle askok gogoratzen dugu nolako tirabirak izaten genituen urtero lan hitzarmena sinatzeko. Goizean borroka bizian aritzen ziren sindikalistak Luzuriagako jabeekin; arratsaldean patroï bihurtzen ziren eta, egia esan, nahiko gogorrak ziren, irakasle on ustetan, behintzat.
3. Hastapenak izan ziren bereziki gogorrak eta horrek eragin zuen hamaika arazo. Adibidez, 1974-1975 ikasturtean zatiketa gertatu zen eta batzordekide batzuk dimititu eta beren seme-alabak ikastolatik atera zituzten. Berdintsu gertatu zen urte batzuk geroago. Ikastola urterik urte eraikitzen ari zen egitasmoa zen eta, jakina, tartean gora-behera asko: irakasleen pedagogia, erlijioa, politika...

Edozein modutan, beti izan dira gurasoak aurrera egin dutenak oztopoak oztopo; nahiz eta beldur eta aurreiritziei aurre egin behar izan zieten. Nik OHOrako urratsa eman zutenak aipatu, edo, hobeki esanda, goraiatu nahiko nituzke. Ikastola sortu, baina haur eskola gisa aritzen zen, inor ez zen ausartzen, lokalen arazoa tarteko, besteak beste, OHOrako (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) pausoa ematera. Hala ere, 1979-1980an, sorreratik hamar urte pasa eta gero, guraso batzuek erabaki zuten beren seme-alabek derrigorrezko ikasketak euskara hutsean egingo zituztela. Haien erabakia funtsezkoa izan zen ikastolaren etorkizunerako. Ingurukoek kritikei eta barneko zalantzei aurre egin zieten (emaitzak, material falta, instalazio egokirik ez, irakasleria esperientziarik gabe...), garai haietan ausardia ikaragarria erakutsiz.

Haietako bi gurasok anekdota polita ere badute. Behin batean, ikasurtea hastear zegoela, andereño batek esan zien ez zuela lan egingo. Ba, Jesus Baztan eta Maximo Fernandez, ez bat ez bi, Beasainera joan ziren irakasle baten bila, nahiz eta bertan inor ez ezagutu; poteatzera joango bailiran. Galdezka ibili ziren arren, esku hutsik itzuli behar izan zuten. Eskerrak Jesus Atxaren, San Fermin ikastolako zuzendariaren laguntza aurkitu zuten.

4. Hauek izan ziren lehenengo promozioiko ikasleak:

- Iñigo Baztan
- Angel Cortés
- Carolina Arizmendi
- Fernando Sanchez
- Inma Perez
- Idoia Pelarda
- Leles Jimeno
- Gorka Amado
- Rakel Garcia
- Nekane Nielfa
- Rakel Baigorri
- Nerea Velez

5. Baina dena ez da lana izan. Hasieratik bertatik antolatu zituzten gurasoek txangoak, hamaiketakoak, bazkariak eta abar: Urbasara, Sa-baizara, Untzuera, Planora... eta haiek izan ziren lehenak ikasturte amaierako festa antolatzen, ondoren beste eskola guztiek imitatuko dutena, beste ekintza asko bezala.
6. Gurasoak, urtez urte, Gurasoen Batzordean, Asanbladan eta hainbat komisiotan parte hartuz, ikastola aurrera eraman dute. Asko dira oso harro sentitu behar dutenak ikastolan egindako lanaz eta lortutako emaitzez. Hau ez da tokia izenak esateko eta, gainera, ikastolaren aldeko lana beti anonimoa izan da, baina agur eta ohorea denontzat.

4. Eraikinak

4.1. Pikondo etxea

1. Asiloko gela bi urterako utzi zuten, beraz, beste toki bat aurkitu behar zen.
2. Eskolapiokoei laguntza eskatu zitzaie, baina hauek bakarrik gela bat utzi zuten gau-eskola jartzeko. Beranduago, 1974an, Jesús Antonio Zufiaurre ikastolako presidente zelarik, eta Garaikoetxearen bitartekari lanaz, berriro gela batzuk eskatu zitzaizkien OHO eman ahal izateko, baina erantzuna ere ezezkoa izan zen.
3. Azkenean, ekin eta ekin, Udalak Pikondo etxean deritzanean zeuden «Escuelas Maria» zaharrak utzi zizkien ikastolakoei. Udalak ere mahai eta aulki batzuk eman zizkien, baina, hura miseria, beste zeregin batzuetarako behar zituztela eta kendu zizkien. Azkenean Erriberriko Frantziskotarrak izan ziren sei mahai eta hamabi aulki utzi zituztenak. (Esan behar da, duela hamabost bat urte arte, ikastolak erabiltzen zituztela Eskola Publikokoek bazterten zituzten mahai eta aulkiak).
4. Konponketa lan handiak egin behar izan ziren eta garai haietan 300 laguntzaile ziren hilero kuota bat jartzen zutenak ikastola laguntzeko. Aipatzekoa da eskailera batzuk behar zirela, 7000 pezeta balio zute-

nak, eta Santiago Doxandabarantzek, Tafallako euskaltzale ezagunak, pagatu zituela.

5. 1971n inaugurazioa izan zen.

4.2. «Escuelas de la Real Defensa»

Lokal berriak behar ziren, besteak beste, legalizazioa eskuratzeko eta 1979-80. ikasturtean «Real Defensa» izeneko eskola publiko zaharrak husten ari zirenez, nahiz eta oraindik gelaren bat erabili, hara joan ziren ikastolakoak. Hasieran gela bat hartu zuten, baina, hustu ahala, dena haientzat geratu zen. Azkenean Udalak 1985ean baimen legala sinatu zuen han gera zitezen.

4.3. Lehenengo handitze lanak

1. Hurrengo urteetan gurasoak jo eta ke arituko ziren eskola zaharrak txukuntzen, baina tokia ez zen aski legalizazioa lortzeko. Baten batek beste tokiren batean ikastola berria eraikitzea proposatu zuen, esate baterako, «Chera» barrutian eta urte batzuk beranduago Pasionistek utzi behar zuten eremuan, baina hainbat arrazoiengatik asmoa ez zen gauzatu. Gainera, ikastolako gurasoek beti garbi utzi zuten haiek eskola publikoa izan nahi zutela. Horregatik behin eta berriro eskatuko diote udalari municipalizatzea, Iruñean edo Elizondon bezala, baina honek ezetz erantzun zuen. Hala ere, mantenu gastuak bere gain hartu zituen.
2. 1983an ikastolak ultimatumak jaso zuen: ezinbestean legalizazioa lortu behar zuen ala diru laguntzak galduko zituen. Esan behar da garai haietan ikasleen Eskola Liburu ofizialak Eskola Publikoan zeudela eta han betetzen ziren paperak, hango ikasleak izango balira bezala. 1983an Nafarroa Oinez Tafallan egitea eskatu zuten 1986rako eta eskolak handitzeko proiektua prestatu zuten. Tafallako «Real Defensa» markesari ikastola ondoan zuen lur zati bat eskatu zitzaion hor

gimnasioa egin ahal izateko eta honek, Udalarekin hitz egin ondoren, ez zuen eragozpenik jarri. Asko negoziatu ondoren lortu zuten Diputazioak %50a ordaintzea; Udalak, %25a; eta gurasoek beste %25a. Dena den, udalak, horren truke, aurrerantzean mantenu gastuak pagatzeari uko egin zion. 1985ean hasi ziren lanak eta 1986an, Nafarroa Oinez egunean, inaugurazioa izan zen.

4.4. Bigarren handitze lanak

1. Matrikulazioa gora zihoan, eta urte gutxiren buruan, berriro ere, ikastola txikia geratzen ari zen. Gainera, LOGSE abian jarri zuten eta guraso nahiz irakasleen asmo trinkoa beti izan zen 16 urte arteko irakaskuntza eskaintzea, nahiz eta hamaika oztopo jarriko zizkieten. Hortaz, berriro eraikina handitu behar zen.
2. Udalari ondoan zeuden maisu-maistren etxeak (dagoeneko gehienak hutsik. Batean, hain zuzen ere, ikastolako jantoki txikia zegoen), uztea eskatu zitzaion, hor DBHrako eraikin berria eraikitzeko. Beti bezala, ez zen erreza izan, baina, azkenean lortu ziren.
3. Beste Nafarroa Oinez antolatzea eskatu zen 1997rako (lehenago egiteko saio batzuk egin baziren ere). Eraikin dotorea eta ongi hornitua egin zen: laborategia, tailerra, irakasle gela, bideo gela, informatika gela, areto nagusi bat eszenatoki eta guzti, frontoia... 1997an erabiltzen hasi zen.
4. Oraingo honetan Nafarroako Gobernuak subentzio eskas bat besterik ez zuen eman eta udalak ezer gutxi, beraz, gurasoek aurre egin behar izan zioten ia-ia presupuesto osoari. Jakina, maileguen bidez; baina abalatzeko ezer ez zegoenez, guraso eta irakasle batzuek notarioarengana joan behar izan zuten beren ondasunak abal gisa har zitezten. Gaur egun, mailegu hauek oraindik ez dira erabat amortizatu.
5. Ikastolaren asmoa beti izan da publikoa izatea; hori dela eta, Udalak bere lurra uztea eta batzuetan diruz laguntzea lorpen handizat hartu izan da; baina bitartean, Nafarroako ikastola askok lurak erosi zituz-

ten eta bertan eraikinak jaso, batez ere, Euskal Herriko ikastola guztiek duten Elkartasun Kutxatik zetorren diruari esker. Egun Tafallako ikastolak ez du deus, dena Udalarena da, nahiz eta obra gehienak gurasoek pagatu behar izan dituzten. 1997an 25 urterako hitzarmena sinatu zen Udalarekin eta ondoren berrituko da, berak nahi badu.

4.5. DBHrako eraikin berria

1. Azkeneko hamar urteetan, matrikulazioak gora egin du nabarmenki, HH eta LHn talde guztiak bikoiztuta daude, eta berriro ere ikastola txikia geratu da. Laborategia, tailerra, irakasle gela, bideo gela, informatika gela baita areto nagusia ere ikasgela bihurtu dira. Biltegia ere egokitu behar izan dugu gela bat prestatzeko.
2. Inguruan ez zegoen tokirik eta Udalari gertu dagoen orube bat eskatu zitzaion. Luzaroan negoziatu ondoren, aho batez onartu zuten uztea, baina arazo administratiboak direla medio, oraindik ez dugu, eta ezin ditugu obrak hasi, planoak prest egon arren.
3. Eraikin dotorea, polita eta handia izanen da. Aurrekoak bezala, hau ere Amaia Jaurrieta arkitekto euskaltzaleak eta ikastolako lagunak proiektatu du. Badaezpada ere, egunen batean Batxilergoa eman ahal izateko prestuko dugu. Hau ere gurasoek ordaindu beharko dute eta horretarako aurtengo Oinez antolatu dugu.

5. Pedagogia

1. Hasieratik bertatik, ikastolak bestelako pedagogia egin nahi izan zuten. Garai haietako autoritarismoa eta zigor gogorak baztertu ziren. «La letra con sangre entra», «La letra con alegría entra» izatera pasatu zen. Ikastola hasi berrian ez zegoen ez mahairik, ez aulkirik. Umeei ongi pasatzen zuten, kantatzen eta dantzatzen zuten, plastilinarekin jostatzen zuten, andereñoek aurpegia margotzen zieten... eta, gainera, dena euskaraz. Ikastola laikoa izan da sortu zenetik, erlijio guztiak

errespetatu dira, baina inoiz ez da eman erlijio arloa. Aldaketa asko batera eta, noski, kritikak handik eta hemendik aditu ziren, baita guraso batzuen ezadostasuna ere. Hala ere, denborak erakutsi du kritikagarria zena gehienok imitatzen bukatu dutela. Laster hasi ziren beste eskoletan ere aurpegia margotzen, plastilinarekin jolasten, zigor fisikoak baztertzen... baita euskara ematen ere (gaur egun Tafallako eskola guztietan ematen da, A ereduaren izan arren).

2. Ikastolako irakasleok beti prest egon dira proiektu eta esperientzia berriak aurrera eramateko ikasleen onerako baldin baziren. Gainera, duela askotik, EHko beste ikastolekin koordinatuz. Hamaika izan dira aurrera eramaten diren egitasmoak: laster hasi ginen idazketa eta irakurketa goiztiarrarekin; eleaniztasunaren alde apustu nabarmena egin genuen: lehenak izan ginen Tafallan ingelesa Haur Hezkuntzan jartzen; frantsesa ere eskolaz kanpo eskaini genuen zortzi urteko ikasleentzat; informatika ematen ere laster hasi ginen; sexualitatea geletan landu dugu konplexurik gabe; Tafallan antolatu eta antolatzen diren ekimen guztietan gaude; mota askotako txango eta bidaiak egiten ditugu; lehenak ere izan gara Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolarekin hitzarmena sinatzen (Gaur egun beste eskolek ere sinatu dute); Euskaraz Bizi, «Eleanitz» eta «Bizikidetz» proiektuak, eta abar, eta abar, eta abar...
3. Baina gure ikasleak, ikasteaz gain, gustura egon daitezten saiatu gara, ahal den neurrian behintzat: Olentzero Eguna, inauteriak, kalejirak, Azoka Eguna, Jaialdiak, ziza bilketa, ikasbidaia eta beste hainbat «abar» antolatu ditugu. Eta hor daude erraldoi konpartsa (Nafarroako lehenengo konpartsa txiki), dantza taldea, abesbatza...
4. Mundu guztiak daki ikastolak ezberdinak direla, berrikuntza asko ekarri dituztela eta beren ikasmoldea eredu bihurtu dela askorentzat. Eleaniztasuna, ikasleekiko hurbiltasuna, elkarlana gurasoekin, laizismoa (ikastola aunitzetan, behintzat), oztopoak gainditzeko kemena, irakasleen motibazioa, proiektu berrietan parte hartzeko beldur eza, hobetzen jarraitzeko gogoia... present egon dira eta daude gure eguneroko jardunean.

6. Irakasleak

1. Gaur egun 35 irakasle gaude ikastolan; dezente gara 20 urte baino gehiago daramagunok; espezialistak daude, pedagogoak, logopeda, zuzendari liberatua... bestelako langileak ere badira: idazkaria, mantentzen ditudenak, jantokikoak... Nafarroako ikastolen lan hitzarmena dugu; lan egiteko instalazio egokiak, nahiz eta azkeneko urteetan dena txikia geratu den; emaitza onak lortzen ditugulakoan gaude... baina lehen gauzak oso bestelakoak ziren. Irakasleak ere ez ginen; izan ere, neskak nahiz mutilak izan, gurasoek «los andereños» deitzen baitziguten.
2. Irakasleok erronka askori aurre egin behar izan diegu eta, neurri handi batean, ikastolaren hezkuntza proiektuaren militanteak izan gara. Normalean irakasleak, ikastolan sartzerakoan, oso gazteak izan gara eta, ezinbestean, esperientziarik gabekoak. Arazoa zen garai batean denak gazteak ginela. Gainera, OHO haserakoan, urtero beste maila berri bat gehitzen zen eta horrek guretzat mundu ezezagun batean sartzea suposatzen zuen. Esan behar da, bestalde, urte haietan ez zegoela koordinaziorik ikastolen artean eta gu, sarritan, irla batean bageunde bezala sentitzen ginen.
3. Beste arazo garrantzitsua izan zen, eta gaur egun ere bada, neurri batean, irakasle mugimendu handia zegoela. Asko ziren urrutetik zetozenak eta urte bat, bi edo hiru, egin ondoren, alde egiten zuten. Garai batean 29 ordu lektibo ematen genituen eta arlo guztiak: Natura, Gizarte, Euskara, Gaztelera, Plastika, Heziketa Fisikoa... normalean instalazio desegokietan eta material gutxirekin (fotokopiagailu bat izan genuenean, zeruko zati bat etorri izan balitzaigu bezala sentitu ginen, multikopista zaharra behin betiko baztertuko genuelako).
4. Kanpo arazoei aurre egin behar izan diegu: ikastolaren afera eta gatazka guztietan egon gara gurasoekin batera, askotan gu abangoardia izanik. Etiketa politikoak ere jarri nahi izan dizkigute, nolabait desprestigiatzeko (oraindik gogoratzen dut, zuzendaria nintzela, behin batean guraso batek, matrikulatzeko zalantzan zegoenak, serio-serio galdetu zidala ea «koktel molotov»-ak egiten erakusten genuen). Bai-

na guk beti argi izan dugu nor garen eta non gauden: gure norabidea gauzak ongi egitea izan da eta erakustea ikastola anitza dela. Horiek izan dira gure tresnak guraso berriak konbentzitzeko eta lortzen ari garela uste dut.

5. Barne arazoak ere ez dira makalak izan: hasieran lan hitzarmena gurasoekin egiten genuenean; barne funtzionamendua, zuzendaririk nahi ez genuenean; guraso batzuek beti militanteago ikusi nahi izan gaituzte, batez ere haiek dena musutruk egiten zutelako; gurasoen mesfidantza: elebitasunak, murgiltze ereduak, funtzionatuko zuen? Umeek ongi pasatzen zuten, oro har, baina ongi prestaturik bukatuko zuten? Sarritan ere gurasoen arteko eztabaiden erdian egon gara: etxeko lana bai ala ez, norainoko zigorrak jarri behar ziren, eta abar.
6. Dena den, ene ustez, bi izan dira gehien kezkatu gaituzten gaiak: matrikula eta emaitzak. Nolako estutasunak pasa ditugun matrikulazioa jaisten zenean ala gutxi igotzean, edo familiaren batek bere seme-alaba ateratzea erabakitzen zuenean, pozik ez zegoelako. Gainera, lehen Tafallan bost eskola zeuden eta konpetentzia latza. Aurten, lehenengo aldiz, gure ikastetxea izan da herrian matrikula gehien lortu duena eta hori guretzat ikaragarria izan da. Bestalde lan izugarria egin dugu ikasleak ongi prestaturik atera zitezten. Bidean gorabeherak izan dira, baina, urtero ikasle ohiekin biltzerakoan, gauzak nahiko ongi doazela esaten digute. Gu pozik gaude eta kanpoko ebaluazio probek ere ala diote.
7. Ez nuke ataltxo hau bukatzerik nahi, hiru irakasle aipatu gabe: Matxalen, lehenengo urteetako ikastolaren arima; Mikel Fraile, urte askotan gure proiektuan buru-belarri lanean aritu zena eta erraldoi konpartsaren sortzailea bere anai-arrebekin batera; eta Kontxa, lehen irakasle aurre jubilatua.

7. Oztopoak

1. Sortu ginenetik gure patua oztopoak gainditzea izan da aurrera jarraitzeko. Batzuetan txikiak eta, beste batzuetan, erraldoiak. Hori hobeki ulertzeko aski da esatea Nafarroan ez dela sekula izan ikastolen

aldeko gobernua, ezta Tafallako Udalean gure ikastolaren aldeko gehiengoa. Dena negoziatu egin behar izan dugu jokoan behin ere «eskua izan gabe eta 31 eduki gabe». Batzuetan ere mahai gainean ukabilkada bat jo behar izan dugu «aski da» esanez.

2. Arazo latzenak kanpokoak izan dira: eraikinak eraiki ahal izateko eta ordaintzeko gorriak ikusi ditugu. Adibide garbia da oraintxe gertatzen ari dena: nahiz eta udalak esan lurra utziko digula DBHko eraikinerako, bide burokratikoan mila eta bat buruhauste aurkitzen ari gara. Jakina, eta gero pagatzearen kezka: zenbat diru aterako dugu Oinez-ean? Zenbat geratuko zaigu maileguen bidez ordaintzeko? Legalizazioarena ere latza izan zen, hil ala biziko afera bere garaian. 17 urte pasatu behar izan ziren lortu arte, 1987ko irailaren 23an, hain zuzen ere, eman ziguten OHOKoa eta hiru urte beranduago, Eskolaurrekoa. Dena den, ziur aski, izan dugun erasorik gogorrera LOGSErekin etorri zen. Ikastolak LH (Lehenengo Hezkuntza), alegia, 12 urte arte bakarrik, emango zuela erabaki zuten eta gero ikasleek euskaraz ikasten jarraitu nahi bazuten Iruñera joan beharko zuten. Hura ezpata bihotzaren erdi-erdian sartzea bezalakoa izan zen. Izugarritzko mobilizazioak izan ziren, 4000 sinadura lortu ziren, Tafallako ia kirol eta kultur talde guztiek gurekin bat egin zuten; Udala, ezinbestean, nola edo hala, gure alde ere atera zen eta, azkenean, Nafarroako UPNko Gobernuak atzera egin behar izan zuen. Hauteskunde garaia zenez, 14 urte arte (DBHko lehenengo zikloa) eman ziguten behin-behinekoz; eta, hauteskundeak pasa eta gero, berriro hitz egingo genuela esan zuten. Ondoren gobernu aldaketa izan zen (PSN+CDN+EA) eta 16 urte arte (DBH osoa) ematea lortu genuen, **GARAIPEN** itzela.
3. Kanpokoak aski ez, nonbait, eta barnean ere arazo gogorrek suertatu dira: pedagogi ala kudeaketa eztabaidak eta, ondorioz, guraso batzuk ikastolatik joatea; lan hitzarmenen negoziatioak guraso eta irakasleen artean (eskerrak 1991n Nafarroako ikastola guztiak batera joatea erabaki zen eta NIEn -Nafarroako Ikastolen Elkarte- negoziatuko zela sindikatuekin. Onartu zen lehenengo lan hitzarmenean irakasleek %11ko igoera lortu zuten, haiek garaiak haiek!) Agian barruan izan dugun afezarik itsusia zuzendaria jartzearena izan zen. Gurasoek bat jarri nahi

zuten eta guk, irakasleok, ez genuen onartzen, gutxi izanik, dena batera eginda ongi funtzionatzen genuelako. Oso tirabira gogorrak suertatu ziren eta, azkenik, 1989an, irakasle batzuek proposatuta, funtzionamendu aldatzea onartu eta lehenengo zuzendaria aukeratu zen.

8. MATRIKULAZIOA

1. Lehen esan bezala, kezka gehien eragin duen kontuetako bat izan da. Lehenengo urteetan taldeak txikiak ziren, gutxi ziren hamabostetik pasatzen zirenak. Hurrengo urteetan, hogeitaz inguruan ibili ginen. 1999-2000. ikasturtean 35 matrikula izan ziren eta aurreneko aldiz ikastolaren historian taldea bikoiztu zen. Baina salbuespena zirudien; izan ere, hurrengo ikasturtean 25era jaitsi bainekin. Baina 2001-2002tik aurrera talde guztiak bikoiztu dira, hots, 30 ikasletik pasatu dira; eta, arestian aipatu dudan bezala, aurten lehendabiziko aldiz matrikula gehien eduki duen eskola izan gara 39 matrikulekin.
2. 1986ko Euskararen Legeak Tafallaldea eremu ez euskaldunean utzi zuen. Ikastola izango zen D ereduko ikastetxe bakarra, nahitaez. Baina inguruko herri gehienetan A eredua jarri zuten eta lehendabiziko urteetan freno handia izan zen herrietako guraso euskaltzaleek beren seme-alabak ekartzeko. Gaur egun, guraso asko konturatu da A ereduarekin ez dela euskara ikasten eta, pixkanaka-pixkanaka, garraio nahiz bestelako arazoak gaindituz, ekartzen ari dira. Gero eta herri gehiagotatik datoz eta, hein handi batean, horrexegatik igo da matrikula. 1991n ia-ia Erriberrin ikastola bat sortu zen bertan eskolaurrea emateko, Tafallara etorri aurretik, baina azken momentuan guraso batzuek atzera egin eta dena bertan behera geratu zen. Beranduxeago Zarrakatzelun lortu egin zen, dena dela, bitzta motza izan zuen.
3. Datu batzuk emango ditut:
 - 1969-1970: 8 ikasle
 - 1973-1974: 40 ikasle
 - 1974-1975: 80 ikasle
 - 1987-1988: 177 ikasle

- 1996-1997: 256 ikasle
- 2000-2001: 305 ikasle
- 2008-2009: 376 ikasle
- 2011-2012: 396 ikasle

Datorren ikasturtean, inolako zalantzarik gabe, 400 ikasle baino gehiago izango ditugu, DBHko 4. mailan talde txikia dugulako. Zer pentsatuko dute lehenengo 8 ikasle haien gurasoek? Eta OHOrako urratsa eman zutenek? **PENTSAEZINA!**

9. Nafarroa Oinez

1. Lehenengo Nafarroa Oinez 1986ko urriaren 12an ospatu genuen. Egun gogoangarria izan zen eta ordura arteko errekorra gainditu genuen, parte hartzaileei dagokienez: 30.000 pertsona eguerdirako eta egunean zehar beste 15.000-20.000 hurbildu ziren. Leloa: «**OINEZ EDO HEGAZ BETI EUSKERAZ**». Logotipoa Benito Goñik egin zuen; abestiaren letra, irakasleek; eta doinua, Karlos Etxeberriak. Uxoa abesbatzak eta Koldo Indartek interpretatu zuten, gaiteroek eta Musika Eskolako Taldeak lagunduta. Eusko Jaurlaritzako Jose Antonio Ardanza lehendakaria etorri zen eta Nafar Gobernuak Román Felones Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria bidali zuen. Zinta German Kabarbaienek moztu zuen. Lehendabiziko aldiz ikastolako Erraldoi Konpartsak dantzatu zuen. Anekdotak asko izan ziren, baina agian ai-pagarriena hauxe: Kotxe baten zozketa egin zen eta irabazleak ikastolarako utzi zuen; 1.000.000 bat pezeta balio zuen! Guk ere eskuzabalak izan nahi eta Tuterako ikastolari 750.000 pezeta eman genizkion.
2. Bigarrena 1997ko urriaren 19an izan zen eta hau ere errekorretik hurbil egongo zen: 110.000 pertsona, Polizia Foralak esanda. Leloa Jaione Izuriagak egin zuen: «**LAN TA LAN AUZOLAN**»; logotipoa, Koldobike Pérez de Iriartek; letra, Angel Irisok eta doinua, Iñigo Agerrik. Zinta Bettina Gomez eta Xabier Flamarike ikasleek moztu zuten. Ai-pagarriena izan zen ibili zen «Castellano» hego haize zitala. Bideak hautsez beteta zeuden eta jendea ere halaxe bueltatu zen etxera.

3. Hirugarrena hilaren 16an ospatuko dugu eta horrexegatik, hain zuzen ere, bildu gara hemen. Leloa Endika Irisok egin du: «**HAMAIIKA HAMAIIKAN**»; logotipoa, «Lafranziska» enpresak; letra eta doinua, Amaia Dominguez eta Edurne Samaniego irakasleek. Interpretazioan besteak beste, honako hauek parte hartu dute: Sorkunek, Xabi Bandinik, ikastolako haurrak eta instrumentuak jotzen: ikasleak, gurasoak eta ikasle ohiak. Ziur gaude, urriaren 17an, denok komentatuko dugula, eguraldiak lagun, dena bikain atera zela eta ikastolak diru puska polita lortu zuela DBHko eraikin berria egiten hasteko.

10. Barraka

1. Jesus Atxa gizon prestuak, Ikastolaren historia liburu batean bildu zue-nean, duela 20 bat urte, harrituta geratu zen festetako barrakarekin; izan ere, berau baitzen gurasoen batzordearen bileren aktetan gehien errepikatzen zen gaietako bat. 1975ean jarri zen lehena eta urtero, huts egin gabe, hor jarraitzen du, 37 urte bete ditu, aurtengoa kontatuz. Diru laguntza nabarmena izan da ikastolarako eta festetako txoko alai, euskaldun eta maitagarria tafallar askorentzat, ideologiengainetik.
2. Ikastolaren arrakastak beti erremindu ditu bere etsaiak eta 1982an norbaitek su eman zion, erabat kiskalita utziz. Baina poxpolu hark ez zuen bakarrik gasolina piztu, mota guztietako elkertasuna ere bai: Udalak gogorki gaitzetsi zuen atentatua eta banketxe batean kontu bat ireki zuen, lehenengo 100.000 pezetak jarritz; Erriberriko gazteriak bere barraka utzi zuen; jaiak amaitu ondoren jaialdi bat ospatu zen ikastolaren alde zezen plazan eta 1200 pertsona bildu ziren... Hurrengo urterako barraka berria eta dotorea eginga zegoen. Horixe da egun jartzen duguna, duela urte batzuk handitze lan batzuk eginda.

11. Ikasle ohiak

1. 389 dira beren ikasketak ikastolan amaitu dituztenak. 1986-1987. ikasturtean lehenengo promozioak bukatu zuenetik, 23 atera dira.

Bakoitzak bere bidea egin du eta bakoitzak bere oroitzapenak izango ditu. Denok azkeneko aldiz ikastolatik atera zirenean, motxilan zerbait oso baliotsua zeramaten: euskara. Askok primeran gorde dute altxor hori eta batzuk irakasle eta guzti bihurtu dira; beste batzuek ahaztuxeago dute. Lanbideei dagokienez denetatik aurkituko dugu, logikoa den bezala: arkitektoak, sukaldariak, enpresariak, tabernariak, erizainak, musikariak, lantegietako langileak, kazetariak, informatikoak, ekonomialariak, garbitzaileak, politikoak, irakasleak, ingeniariak, odontologoak, elektrikariak, harakinak, filosofoak, kamioilariak, enologoak, artistak, dendariak, itzultzaileak, langabe-tuak, jakina, eta oraindik asko ikasten ari dira.

2. Iaz, ikastolaren 40. urteurrenean, lehenengo aldiz, Ikasle Ohien Eguna ospatu genuen. Uste baino askoz gehiago joan ziren, ikasle ohi gehienak. Egun zoragarria izan zen eta giroa, bikaina. Bejondeiela guztiei!

12. Gaur egun

1. Eta gaur egun zer? Ba, lehenengo lepotik burua. Bidean hamaika oztopo, beti bezala: eraikin berria altxatu eta ordaindu behar dugu; DBHn 36ko talde bat dugu eta ez digute bikoiztu nahi; DBH amaitzerakoan, ikasleek euskaraz jarraitu nahi badute, Iruñera joan eta gainera lau ordu gehiago eman behar dute, eta hori gutxi balitz, azken urteetan arazoak izaten ari dira eskura duten institutu bakarrean matrikulatzeko; herrietakoei beka kendu dizkiete; ETB etxe askotan ez da ikusten, eta abar, eta abar.
2. Erronka garrantzitsuak ere baditugu: Ingelesaren «lasterketan» ez dugu atzean geratu nahi eta horretarako «Eleanitz» metodologia aplikatzen ari gara, oso emaitza onekin; euskararen erabilerak kezkatzen gaitu; Bizikidetzaren proiektuan bete-betean sartuta gaude; biharko egunean Batxilergoa eskaintzea gustatuko litzaiguke...
3. Oztopo eta erronkei aurre egiteko betikoa egingo dugu: lan ta lan auzolan. Nafarroa Oinez buru-belarri prestatzen ari gara; Udalarekin

negoziatzen jarraitu behar dugu; Nafarroako Gobernuak gure errebin-dikazioak noizbait entzun beharko ditu; irakasleok kalitatea hobetze-ko 5-6 urteko proiektuan sartu gara: Kalitate Integrala Egitasmoa. Hasierako ilusioa, gogoia eta motibazioa mantentzen dugu. Biharko egunsentia eder antzematen da.

4. Denok oso harro sentitu behar dugu lortu dugunarengatik: ikastolako guraso, irakasle, ikasle eta historian zehar lagundu gaituzten hamaika lagunek. Ikastola da, ezbairik gabe, gure inguruan sortu den euskal lorerik xarmangarriena.

13. Iñigo Urzain Anduezaren olerkia

XXI. mendean Iñigok, Juan de Amenduxek bost mende lehenago egin zuen bezala, Tafallan, Tafallako ikastolan, olerki bat idatzi eta Nafarroako Gobernuak antolatzen duen literatur lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen. Guk iazko ikasturtean argitaratu genuen literatur liburuxkan agertzen da beste ipuin, olerki eta narrazioekin batera.

Naufrago baten botila bateko mezua

Itsasoak bahituriko txalupa honetan,
bolaluma eta paper puskaz,
nire bizitzan, azkenekoz,
ardo botila baten hilketa izkiriatzera noa.

Bere haurtzaroak begiak itxi ditu.
Arraunen gidaritzapean itsasoetan naufrago,
bere kokapena ezagutzen duen naufrago.
Bere nerabezaroa akabatu dut.
Maitasunaren naufrago,
gizartearen naufrago,
gorroto eta atsekabearen naufrago,
biziminaren naufrago.
Bere gaztaroa zendu dut.

Nahiko nuke sentipen bat izatea,
nahiko nuke nire bihotzaren baitan ametsak esnatzea eta loratzea...
Amets loratuak,
amets ustelduak,
ez ordea amets lokartuak...
Bere heltzaroaren bihotza itzali egin dut.
Aments, ametsak amestea...
Sentitzea...
Nire arimak ez du hitz honen esanahia ezagutzen.
Bere zahartzaroa amaitu da.

Botila hutsaren barnean nire hilburukoa sortu,
uretara jaustera behartu,
bere hartzaillearen zain,
nire bihotzeko ametsen giltza duenaren zain,
itsasoetan barrena naufrago dezan.
Arraunen gidaritzapean itsasoetan naufrago,
Bere kokapena ezagutzen duen naufrago...
Itsasoetan barrena naufrago izateari utz niezaioke,
Ez ordea sentimenduen naufrago izateari.

Eskerrik asko. Tafallan, 2011ko irailaren 30ean.